Asisko gutuna

2026ko ekaina 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi 212. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Familiak, senide-elkarteak esfortzua eskatzen du, amore ematea. Baina ez da betebehar batetik sortzen, maitasunetik baizik-

Gogoetarako gaia

Maitasunak eramanak

Elkarte, familia edo adiskide-talde baten hasierako garaiek esker ona eta gogobetetasuna berekin dakarte. Anaiarteko harreman baten lehen urratsak normalean esker onekoak izaten dira, ahalegina eta lana eskatzen duten arren ilusioz beteak direlako; hainbeste gauza egiteko, hainbeste gauza abian jartzeko... Denborak aurrera egin ahala, zailtasunak agertzen dira, konpontzen batere errazak ez diren arazoak, eta ikusten da, borondate ona izan arren, ez direla lortu guk nahi genituen xedeak, hasierako energia horiek txikiagotu egiten dira eta senide elkartearen bideragarritasunari buruzko galderak sortzen dira, garai batean egindako apustuak merezi ote duen.

Estraineko arazoetan amore ematea ez denez egokia, senide elkartean berau salbatzeko ahaleginak areagotzeko betebeharra agertzen da. Kide bakoitzak gehiago jarri beharko du bere aldetik. Hasiera haietan zeuden sakoneko motibazioak berrikusteko eta garbitzeko garaia da. Agian idealak, ametsak, ilusioak besterik ez zeuden. Baliteke amets eta ilusio horien erdian ere harreman osasuntsu eta benetakoa egotea. Ahaleginari eusteko garaia da, baina ez behartuta, maitasunagatik baizik, gure bizitzan norentzat eta nori esker bizi garen jakiteagatik. Profesional bat soldatan ahalegintzen da, dela dirutan, dela beste moduren batean; ama ez da ahalegintzen obligazioz, maitasunez baizik.

Senide-elkarteko kideak maitasunezko harremanak -ez betebehar hutsezkoak- izaten laguntzen dieten bideak ikasten joango dira. Harremanak eskatzen duen ahalegina maitasunak bideratuko du. Horretarako, maitasun hori elikatzen duten elikagaiak bilatu beharko dira. Ahalegin horren ordaina ez da soldata izango, maitasun handiagoa baizik, edo maitasuna bera, harremana aberasten duten gozagarri berriekin: pazientzia, eskuzabaltasuna, ontasuna, fedea, itxaropena...

Biblia pasartea: Kol 3,12-15

Jainkoak maitatu eta bere herri santu izateko aukeratu zaituztenez gero, jantz zaitezte bihozberatasunez, ontasunez, apaltasunez, otzantasunez, pazientziaz. Izan eraman oneko elkarrekin eta barkatu batak besteari, inork inoren aurka zerbait balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta guztien gainetik, jantz zaitezte maitasunez, hau baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakea izan bedi nagusi zuen bihotzetan, horretara deitu baitzaituzte Jainkoak gorputz batean elkartuz. Eta izan zaitezte esker oneko.

Frantziskotar espiritualtasuna

Anaien gain kargua izan nuen bitartean, haiek beren bokazioan eta profesioan iraun zuten, eta, Kristogana bihurtu nintzenetik ni beti gaixotia izan naizen arren, ez nuen gehiegi arduratu beharrik izan neure etsenpluaz eta predikuaz haiek pozik uzteko. Baina Jaunak anaien kopurua ugaltzean, ikusi nuen haiek, beren espiritu txepel eta eskasagatik, joan ohi ziren bide zuzen eta ziurretik aldentzen hasi zirela eta, esan duzun bezala, bide lasaiagoa hartu zutela, beren bokazio eta profesioari eta etsenplu onari kasurik egin gabe; nola nire predikua eta etsenplu ona gora-behera, ez zioten hasitako bideari uko egin nahi, Jaunaren eta ministroen esku utzi nuen Ordena.

Kapitulu jeneralean, anaien aurrean karguari uko egin nion unean, nire gaitza aipatu nuen haien zaintza eta ardura ezin eraman nuela argudiatzeko. Hala eta guztiz ere, nire heriotzako eguna arte ez dut etsiko, etsenpluaren eta egite onen bidez, anaiei Jaunak erakutsi zidan bidetik ibiltzen irakasten. (PerLe 106)

Otoitza

Jauna, elkartzen gaituen maitasunaren iturria,
Zuk badakizu familiak eta senidetasunak
esfortzua, ekina eta iraupena eskatzen dutela.
Baina gogora iezaguzu beti
ez direla betebeharretik sortzen,
deitzen eta sostengatzen gaituen maitasunetik baizik.

Lehen berotasunak igarotzen direnean
eta zailtasunak agertzen direnean,
ametsak higatzen ari direla dirudienean
eta bizikidetza pisutsua bihurtu,
garbitu, mesedez, gure motibazioak
amore ez emateko eta bihotza ez gogortzeko.

Erakuts iezaguzu maitasunagatik ahalegintzen,
ez betebeharragatik, ez beldurragatik,
nori esker eta norentzat bizi garen jakiteagatik baizik.

Elikatu gugan
pazientzia, eskuzabaltasuna, ontasuna eta barkamena
posible egiten duen maitasuna.
Erraiak errukiz estali,
Zuk aukeratutako eta maitatutako herri gisa.

Elkar jasaten jakin dezagula;
barkatzen Zuk barkatzen gaituzun bezala,
eta perfekzio-lotura den maitasunak
batzen utzi.

Kristoren bakea gure bihotzetan nagusi izan dadila
eta gorputz bakar bat bihur gaitzala,
esker onekoa eta beti maitasunak eramana.

Amen.

Gutuneko azken hitzak

Adiskidetasuna bi gorputzetan bizi den arima da, bi arimatan bizi den bihotza.
Aristoteles (384 AC-322 AC) Filosofo grekoa.

2026ko martxoko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Mk 12,1-12	7. Jn 6,51-58	13. Mt 5,33-37	19. Mt 6, 19-23	25. Mt 7, 21-29
2. Mk 12,13-17	8. Mt 5,1-12	14. Mt 9,36-10,8	20. Mt 6, 24-34	26. Mt 8, 1-4
3. Mk 12,18-27	9. Mt 5, 13-16	15. Mt 5,38-42	21. Mt 10,26-33	27. Mt 8, 5-17
4. Mk 12,28b-34	10. Mt 5,17-19	16. Mt 5, 43-48	22. Mt 7,1-5	28. Mt 10,37-42
5. Mk 12, 35-37	11. Mt 5,20-26	17. Mt 6,1-6.16-18	23. Mt 7, 6.12-14	29. Mt 16, 13-19
6. Mk 12, 38-44	12. Jn 19,31-37	18. Mt 6, 7-15	24. Lk 1,57-66.80	30. Mt 8,23-27

Geure web gunea bisitatu
www.asissarea.org

Asis Sarea
646 21 48 96

Ekainean elkarrekin ospatuko dugun otoitza 25ean izango da.